

Daniel LANDART

ETXE
SARTZEA
Ankerki tabera

Baigorriko gazteen
eta Christiane Etchalusen
laguntzarekin egina

Baigorriko Gaietako plazan emana, 1976an

Jokotariak

Herriko mutila

MANEZ, laborari donadorea

Gaitxagorri

Erdikal, tratularia

Peio

Koxe /
Remi /
Leon /

Herriko mutilo gazteak

Kattalin

Mirentxu

Maita

Herriko nekato gazteak

Peioren aita

Peioren ama

Auzapeza

Jendarmeak

Herritar andana bat

I

(1)

HERRIKO MUTILA

Jendea etortzen den denbora guzian, albotka
joka da. Gero, Herriko Mutilak atabata joz huna
zer oihukatzen duen =

H. M. : "Jaun andereak, jaun andereak =
jakin arazten dautzuegu "Ezponda"
deitu etxaldea salgei dagola.
Nork edo nork hortaz jabetzeko
xederik balu, lehen bai lehen
Herriko etxerat ager dadila,
han urkanen ditu behar diren
xehetasunak." >>

Solas kauek, Herriko Mutilak kiruzpalan
aldiz errepikatuko ditu.

I

(2)

Herriko-Mutila ixiltzen denean, Manez Ezpinda,
beste zoko batetik agertzen da, astoa kraasterutik
akeluz eta bere buruarekin gora mintzo =

MANEZ-ASTOA

Manez = Gureak egin dit to; gureak egin dit. Funtsean,
aspaldi ba nahi hola finituko zela. Baina
ez nian uste tenore hau hain laster etoriko
zenik. A, ez! (Geldi). Hemen gaituk to orai, hi
eta ni, biak berdin asto!... Biak berdin
asto! Baina hi, onsa futuzen haiz eni
gertatzen zautanez; zaldare on bat dukan
ber, putarrak gora igortzen ahalko dituk...
Nik aldiz, ez diat naski, hemendik aitzina,
putar haundirik lotako... Nahiz orai arte ere
frango umil egona naizen... Umilegia hain
segur. Zer nahi duk = aita bizi zero,
hark zian manatzen eta hark bakarrik.
Eta hil zenean; jadanik hantxelan harat joana
nintzan to... Baina ama hor nian oraino.

Beharrik. Orai uma ere joan zaitak... "Ezponda"-n ez duk
 gehiago nehor gelditzen, ni baizik... eta hi. Deus
 baino hobe. Zorigaitzez, hitarik ere behexi leharko
 diat. Ezin dezakeiat bertzela egin. Gaizoa, gaizo
 puska. Ez zahiak konprenituko naukan bainan
 adi nezak kalere: ene sort-etxearen aldeat hutsik
 ibusteak izitzen nait, izitzen! Alta ez nautk beldurti
 hoiarik, ba pentoa! Gerla ezagutu diat. Bainan
 hau, gerla baino pisagoa duk! Gerlan bederen,
 nahas-mahas, denak elganekin gintian: hil ala bizi...
 Hemen, auzokoak eta lagunak urrun ditiat, heriotzea
 aldiz hurbil. Aitamak bizi zireno ez nautk ohartu
 ni ere ez nindagola beki hogoi urtetan... Hogoi urte...
 Ba diaguk to, gerotik, zombait-zombait antzara ferraririk!
 Bainan ni ferrarik gabe gelditu. Eta uste baino goizago
 higatu. Zer ariko naiz beraz etxe huts hortan, bakarrik?
 Barneko eta kanpoko lanetan, beti bakarrik? Zendako
 eta morentzat? Hoinbeste, hoinbeste lan ibili ondoan,
 bizi guzian lehergiteko arizan ondoan, horra
 orai zertaratua naizen: segiteko beldur,
beldur eta ez kapable. Ez kapable. Beraz, beraz
 hobe diat hemendik joatea. Ekzea salduko diat,
salduko, eta joanen nautk itu-mandoka,
 joanen nautk nozk daki norat!...

II (1)

BI EROSL E

(Taula-gain gora batean, bi gizon agertzen dira. Bat
larga-bixtekin so egingo, emehi kurrizten da. Beste
aldiz, galtza goritan, dantzan ari da eta bertua
lota ondoan "Satan dantza" emanen du.).

(Bertuen ainea: Xateko kantuarrena).

Bertularia: Denak legian daude orain "Ezpondari"
Iduri arranoak ardi eritari.
Tratulari lehena duqu "Galtzagorri"
Horren nausi kaundia Parisen da bizi,
Harek erosten badu, bilduko du... sari!

(Galtzagorrik bere dantza bururatu ondoan
jalgitzen. Erdikal daqu bakarrik taula-gainean.)

Bertularia: Delakotz mahinuna, duelakotz ahal,
Kabalekin gizonak berdin bezazke sal.
Lur-erosten hasia sosak ez dezan gal.
Berrak hartaraino ukan baitu hegal,
Xede mekin temen daukagu "Erdikal".

(Erdikal-ek Manx Ezponda ikusten duela
mail batez apaltzen da eta horrekin
sotasear hasten).

II

(2)

ERDIKAL - MANEZ EZPONDA

Erdikal Jauna, kantōnamenduko laborari-
makinuna, alegia deusez ikuska dabila eta bat-
batean Manez Ezpondarekin junt egiten du:

Erdikal: Ari, kanaskan?

Manez: Arizon behar ori, arizon behar.

E.: Aroa alde duzu...

M.: Aroa bai. Aroa aski balitz gauzen ongi itzulikarazteko...
Gogoia ere behar ginuke... Baiman...

E.: Egia. Egia. Holako malura ukan ondoan...
Gaizo emaztea. Zoin fite joan den azkenean.

M.: Zuki errazu... Alta azken egunetan hobekizera
egina zuen eta medikuak berak erana zaituen...
beharbada... Baiman, zer nahi duzu, mediku
horiek ere tronpatzen baitira...

E.: Adina hor baitzuen, adin haundia...

M.: Adina bai eta nolako bizia. Nolako bizia.
Xehetasunetan sartzen bagine ba ginuke aratsalde
guziarena... Eta orai joana, ori. Joana.

E.: Bakarrik gelditzen zira beraz, kaxko huntan?

M.: Bakar bakarrik. Zernahi gerta ere, bakar bakarrik.

E.: Gaizto gizona, ez zinen segur hori merezi... Baina zer egin? Zer egin? Eta ez zira bakarra. Zu iduriak, ehunka ta ehunka ba dira, eta futbo nehorik ez jakin nola joka ateka hortarik ateratzeko...

M.: Hori, nihauek ere ba dakit. Eta jakin-zazu zerbait-zerbait gostatzen zautala. Azken hilabete hauetan, gauaz ez dut begirik hesten.

E.: Alta, etxalde plantakoa duzu...

M.: Familia baten haztekoa... (Bere astoari): Baina ez baitut nik, orain, familiarik...

E.: Frango pater halere...

M.: Ba, ba... Baina nik ez ditut senditzen ere...

E.: Eta zer bixta...

M.: Bai, zer bixta. (Bere astoari ahapetik): Bereziki begiak ez zuzkigularik nigarez ari.

E.: Auzokoak ez dituzu hain urrun... Zerbait eskukaldi emaiten ahalko daukitzute.

M.: Eta nola! Biziki onta ahomeatzen gira. (Astoari): Zerbait eskukaldiren berhana baizik ez bagina... (Gora): Auzokoak hor dira bai, hor dira, baina auzoan...

E.: Egia. Egia haundia. Nik; garbiki erranen dautzut, ene ustez segurik, biziki onta egin zinezakeela zure etxaldearen uztea. Badakit, ez da ereta; baina hortan arazoin zinuke. Erotik! Zerbait eta zerbait

ez ditut ikusten, han eta hemen, arunt tematuak,
salbaiak bezala bakar-bakarrik lanean ari, beren
etxaldea ezin kudeatuz. Iduri-ta egungo egunean
gizon batek berak etxaldea bat kudea dezakeen!...

Ez, ez; egungo egunean behar da orainko bizia
jarraiki edo hantat gaitxo bestenaz. Egungo egunean,
zure kasuan diren donadoek behar lukete beren
etxaldeak lehen bai lehen saldu. Zeren, orai ez da
lehenago bezala gero! Orainko Gobernuak - eta ez
nola nahiko Gobernuak - ahal dituen guztiak egiten
ditu zuen alde eta horrela xahartze goxo-goxo
baten pasatzeko dretza ardietsiko duzue. Beraz
zendako ez balia?

M.: Zuk erazu... Funtsean ez dugu ez elatsia ukanen...

E.: Etxaldea saldu-ta gero, sos meta bat ba zinuke
eta orduan trankil-trankila "Zakar. Etxe" batean
sartzen ahalko zira. Nahi dituzun guztiak ukanen
dituzu; zinez errega bat bezala artatuko zaituzte.
M.: Alabainan, diruarekin zer ez da ukaiten ahal...

(Astoari, ahapetik): Bizi guzian hemen egon ondoren, ez diat
neste, ni, han, anoz heien artean aise laketuko naizenik...
deus egin gabe, aldeat alfer...

E.: Etxe horietan leku zoragarriak dira. Horietan sartzea,
parabisuan sartzea bezala da. Harrituko zira
zuharr. Harrituko... eta segidan laketuko -

M.: Ba dakizu, Arabiaruan sartzeko ez naiz ez presaturia... Baina egia erran, nik ere holako zerbeiti pentsaturia nuen bai. Halere, ez da erretx ori, kipust-tapastean gauza guziren aldatzea. Ez da erretx.

E.: Konprenitzen zaitut. Zinez konprenitzen. Beharbada ausart batentzat hartuko nauzu baina martzen ba dezue segurik, lagundu nahi zinduzket.

M.: Ho bai, gogotik.

E.: Zahar-erke horietako baten buruzagia lagun haundia dut. Biziki gizon serioa. Hor sartzeko paperen egiten lagunduko zaitut, zeren ezdeusendako zernahi galdetzen bait dautzute. Bestalde, edozein gauzerentzat argitasun beharretan ba zine, jin gortuan ere ikustera.

M.: Milesker. Milesker ori. Eta... etxaldea?

E.: Ez zitela etxaldez hexa! Egungo egunean erosleak dozenan hamahiru ba dituzu... Eta kabalantzat, usaian bzala akomea gintzake...

M.: Hobe segur! Baina lidearen gainean egoiteko partez, zauri etxeraino, arabaldetako haakaria elgarekin eginen dugu... Doi-doi aji-ta gasna poxi bat, arno xorta batekin...

E.: Egun ez. Barkatu. Presaturia naiz. Baina beste aldi batez gogotik... Zaude, zaude, heldu den astean ori... ostziraletan bostak irian libro naiz...

M.: Iguikatuko zaitut. Zauri gortuan... Zu bezalako gizonekin mintza daiteke bederen. Zauri.

E.: Ez adiorik.

(Eta Erdialak ba doa).

ERDIKAL-ek urrunago:

E: Beste eskalde batz, aberastuko nauk naski...
laster... eta prezio mean...

MANEZ-ek aldiz:

M.: Zein gizon mak ba diren bestenaz mundu huntan.
Beharrik funtsean...

III

(1)

— Gazteak elganehin.

PEIO, KOXE, REMI, LEON

Peio: Nik nuste diat, zinez nahi ukan balute, gure rugbilariek irabaziko zutela...

Leon: Bakea emak hortik mutikoa... Besteak aitzinean biziki azkanago zitian.

Peio: Aitzinean behar bada bai, baina gureak ere ez dituk txanah gero... eta jakin-zak aurtan urrun joanen direla!

Rémi: Hola segituz segurik, behar bada urrun joanen dituk baina ez gora!

Peio: Aldi bat galdu dutelakoan, ez duk ez etsitakorik...

Leon: Aldi bat baizik ez balitz...

Koxe: Ez balute hoinbeste besta egiten eta hoinbeste mozko biltzen... behar-bada igandetan tenpu onean eta zaluago litazkek...

Peio: Zerbait eraiten ahal duk to hik! Joan den igandean haukan anailarekin!...

Koxe: Ba baina nik ez diat urtean bat baizik biltzen gero!

Peio: Urteak biziki laburak duzke beraz hinetan!

Leon: Zuekin ez ditakek solasta ere... Rugbiaz ari gaituk eta zuek segidan beste zerbaitetara ba zoazte... Funtsean konprenitezkoa duk... berdin rugbian ez duzue deus ezagutzen...

Peio: Hih erakutsiko naski?

Leon: Eta zendako ez?

Koxxe: Ni segurik, rugbiak onba futizem nauk. Miletan nahiago diat pilota partida bat ikusi ezinez-eta zeri ihalozkatze bat balm txar baten ondotik...

Peio: Bai eta nik biak gogotik baztenera utz nezazkeek, neska eder batekin egoiteko...

Leon: Egoitea, fitzik ez duk. Nik gehiago ere nahi niket...

Peio: Ez dik sekulan gormantegia izan behar, amen - Ni, hastean, gutiz kontent nintakek... Gero ikusitko...

Leon: Neskatoekin ere rugbian bezala duk... Essai... Essai... eta azkenean... la partie est gagnée!

Koxxe: Debiarentza, hik, hola mintzatzeako esperientzia haundia baduket ez?

Leon: Rugbilari ohia nuk gero!

Koxxe: Eta gizon-gai ohia ere... Zer gertatu zauk?...

Leon: L'essai n'a pas été transformé, to!...

III

(2)

KATTALIN - MIRENTXU - Maite

- K.: Ni, enoatzen naun herri kuntan... Astearen erdian deus ez dun jostatzeko...
- Mi.: Alta igandetan ere, balaz kanpo, ez dinagun gauza baundirik...
- M.: Dena ere on!..
- K.: Bai, dena ere on... Baina ni segurik ez nun batere gustatzen... Hemengo mutikoek halako trukets aise bat ba diton...
- M.: Zer uste dun beste eskualdetan ez direla berdin?
- K.: Beste eskualdetan ez zakinat xuxen nolakoak diren bainan lehen xixton segurik iduri liken nekatoentzat arta gehiago ba dutela. Hemengoak, arunt basak diton...
- Mi.: Ha hori bai! Ez dine deuseri kasurik egiten. Nih, joan den egunean "pantalun" berriak zani ditudalarik...
- M.: "Pantalun" berriak? Zoin?...
- Mi.: Delako briolet largo largo kek... Ez katz orroizen?...
- M.: Ha bai... Biziki onoa jahan zaizkiran...
- Mi.: He be... este dun mutiko bakar batek berak zerbait eman dautala? Ba pentsa! Ez ditun ohartu ere... Alta espres erosiak nintzan!
- K.: Mutiko horiek ez ditun bakar bada ohartu bainan ba ditun ohartu direnak... Eta nola!
- Mi.: Bai. Bazakinat. Betiko berak. Atzo zahar kalakari debru horiek... Niharek entzun ditinat biga nitaz mintzo.

K.: Zer zioten?

Mi.: Zer zioten? Gauza pollitak segur! Batek zionan: "Juhan zakon no, astoari xokoleta!" eta besteak segituz: "Gure alaba lalitz segurik, guk makastian ezar ginezaken, mamu gisa, xorien iziarazteko"!

K. eta M.: Ato txanak!

Mi.: Zer uste dute ala, berak itusiala direlakoan guk ere itusi behar dugula izan? Trenpatzen ditun!

K.: Eta ez guti! (Geldi).

M.: Eni beriz ba dakizue joan den igandean zer gertatu zautan?

Mi.: Zer ote?

M.: Ballea nintunan... Hiruzpalau gomita errefusatuak. Azkenean bat jin zaitan. Itxuraz ez hain gaizki. Egia enaiteko mutiko edena. Bainan dantzan hasi orduko ezpainetan ausihika hasi zaitan...

K.: Ausihika?

M.: Ausihika bai ausihika! Zortzi egun hartan jatekoa ez balu bezala! Arrunt baze. Eta Rikard usain batekin... Trenputxartzekoa... Ez nahinan zer egin, ez nahinan, eta horra nun bi minutaren buruko enaiten dautan ~~otora~~ ^{autora} nahi nuenez segitu... ~~otora~~ ^{Aukra} nahi nuenez segitu! Nik ezetz, ezetz. Orduan, klak, kan utzi nin, dantzarien erdian bakarrik, eta beste neka luten gomitatzeraz joan dun gosturik hoberenean... Transbitua nintunan, transbitua!

Mi.: Mutiko horiek gure sendimenduez ontsa futitzen ditun...
Beren plazera baizik ez dione xekatzen.

K.: Nik bakantza denboran ezagutu nuen seguriti
araz goxoa eta fina zunan.

M.: Zoin? Perpignan-eko kura?

K.: Perpignan-ekoa bai. Robert. Zer dantzaria! Loria zinan
harekin edozoin dantzaren emaita... Eta elektaria!
Ezin ixildua! Eta jakin-zan inteligenta zela
gero! Jo Dassim eta Ringo-ren kantu guziak gogoz
ba zazkinan! Eta bestenak ere frango plantan-
Harekin bederen mintza ahal zitakenen...

M.: Bete Perpignan-en dagon?

K.: Ez-Ez. Orain Parisera joana dun.

Mi.: Eta izkiriutzen daun?

K.: Izkiriutzen daitan bai. Baina harek letra bat
igortzeko denboran, nik hiru igortzen daizkonat!
Hain dinat maite...

M.: Zendako ez haiz Parisera joaiten, han aldeat
elganekin zintazketē...

K.: Ez dun enex parkizea. Ait'ameri zer konda
nezake? Funtzean ez nezaketēn utz!

M.: Ni kalere, hiru partez gehiago mugi nintakēn. Ala...
heldun haiz Robert-ek beste bat ba duela...

K.: Ba pentoa! Eta bestenaz ere beti enana dun bat
gal eta kaman kanapa! Berezihi hiri haundi
koietan! Eta Raymonde-k berak - alta ez dun

gu bezain pollita eta hardita - izkiriatzen zaitanan,
Parisen gau guziz ateratzen dela eta kasik aldi oroz
norbaitek gomitatzen duela ostuan afaltzerat. Egia
daiteken, zeren hurat heldu delarik, arunt
akitua dun...

Mi: Bixtar dun egia dela. Duda-muda izpirik gabe. Eta haren
bezkimenda ikusi duzue? Haritzekoa ba dun... Haritzekoa.
Eta haren zapatak? Zer zapatak... Hemengo zoko hotan
ez dun holakorik hartzemaiten... Alta ni xekatzen nuen...
bainan debaldetan... Ez dun hartzemaiten.

M: Eta azkazailak... Azkazailak pertzez tindatuak zitinan...
(Eta neskatokak tokiz aldatzen dira eta emeki-emeki mukikoer
buruz doatzi, katalin mintzo dela:)

K: Guh ere berdin egin ginezaken... Eta jakin-zan ba ginakihela
laster hiritartzen. Goiz guziz mainua hartu-ta, bizpahirun
oren ba gimizken mahillatzeko. Eta gero, nahi bezala
besti: goizetan berdin galtzetan, aratsaldetan zaia
labur arin bat eta gauaz aldiz lurrerainoko
arropa beltza. Ureria nunahitik dilindan...
Eta auto bat, auto luze-luze bat, Amerikano
kiritarik... Ziganeta hoberenak pipa ginezaketen,
edari finenak lurrua... ~~Beta lehen modan~~
~~gintazken~~ Eta gau guzian, gizon eder aberatsekin
besta egin ginezaketen goiz-alde arte... Beti
lehen modan gintazken edo hobeki emaiteko
moda guh egin ginezaketen. Ikusten nuzue,

ni, ikusten nuzue... (Andere haundi jestu batzu egiten ditu), xakur tipi bat besotan... Parisetik hura heldu... Neska guziak gutaz jeros litazken, denak harituak lizian zoin onsa erreusitu duzun eta guk hemengo jendeari ez ginezaken kasurik ere egin!...

M.:

(Mukikoak erbiz erakutsiz): Bai, bainan zer eran lezakete hortxetako horiet... Zer eran lezakete?...



III

(3)

(Donadoa posatzerat heldu).

Donadoa ostatutik jalgitzen da eta mutiko gazteekin jurt egiten du. Geroxago neskatok ere hurbilduko dira eta elganekin solasta bitez.

MANEZ - MUTIKO GAZTEAK

Koxe: Astoa num duzu, Manez?

Remi: Ba, egun ez dnik ez asto beharirik naski, bildua duen pottoka aski zahok!

Manez: Egonki...

Peio: Ba... eta zu ibilki?

Manez: Ibilki, ba ba ibilki... Ibiltzea bederen ba diaguk...

Peio: Hori bera ez da gairiki...

Manez: Ez, ez. Ez, ez. Eta zuek zer ari zirezte, haize pikatzen? Edo, ihizirat jinalak berdin?

Koxe: Ihiziko sasoina pasatua da...

Manez: Ba... ba dakik bai zoin ~~iz~~ ihiziz mintzo naizen... Funtsean ez duk ihizia eskas... ba dituk segur pollitak...

Koxe: Zer duzu zuek ere holakoeri begiratzen? Beranteko da ez, orai?!...

Manez: Ba naski ba. Nahiz... (Geldi). Baina kasu emazue gero zuek ere... Kasu-emazue... Gazte zirezteno mugitu behar baita... Gero berantegi duk...

Remi: Zuk ere bestendako ba dakizu oi...

Manez: Ezin uka... ezin uka...

Koke: Baiman berdin bizi zira, ez?

Manez: Berdin bizi... Berdin bizi -- Bizi behar, to... Bizi behar...
(Orduan nekatzak hurbiltzen dira).

Manez: Baniak orain... Ni baino konpainia hobea heldu zaitzue eta... Ez adiorik!

Deneh: Bai, bestaldi bat artio...

DONADOA - MUTIKOAK - NEXKATZAK

Kat: Zer zaitugu guk haizaten?

Manez: Ba pentsa... Ez, ez. Baiman zaharrek ez baitute deus ikustokerik gazteen aferetan...

Maité: Hala diote... Baiman hori egia denez ez dakit...

Koke: Gure gatik segurik egoiten ahal zira, gostu gustian...
Ez dugu segur sekreturik gordetzeko...

Kat: Ha hori ez... Baiman rugbiak aparte... ez dute gauza haundirik kondatzeko...

Koke: Has hadi hitxikan hi, debru napurra!

Kat: Ez diat egia dena baizik erraiten...

Koke: Errazu Manez, hau segurik zurekin eremaiten ahal duzu... antxiak zainduko daukitzu...

Manez: Ba, ez diat ez antxien zaintzeko nehor haundiren beharrik; nahiago niket norbait salda kozina on baten egiteko... Baiman bego hortan. Koxino,

utzi behar zaituztet... Ez adiorik... eta egon perostuki...
Donak: Agur Manez...

(Manez ba doa).

MUTIKOAK - NEXKATXAK (Gogoetak)

- Mi: Eta zer dioguzue?
- Mutikoek: Ontoa; eta zuet?...
- Kat: Gaizki bagine ez gintazketek hemen...
- Peio: Gaizo Manez...
- Remi: Hik enak... Ez ditakek goxo etxean bakar beharrik izaitea...
- Leon: Laspost behi ba onen dituk jadanik saldiak Erdikal maharunari.
- Romi: Eta etaldea bera, naski...
- Kat: Debuientxua, zer arakasta duguna...
- Mi: Aldi bat elgar ikusten-eta, ez ahal gaituk denbora guzian gizon zahar hortaz mintzatuko?...
- Peio: Nahitez gizon zahar horren kasual denak hunkitzen gaiten.
- Kat: A bon? Ni segurik ez biziki...
- Peio: Ba, hik, denak ainerat hartzen ditun!
- Kat: Milesker! Hasien kasi, enak mento bat naizela ere...
- Peio: Zartako bat bil beldur nintaken...
- Kat: Ja, ja, hitzendako ez diat zartakorik emaiten. Bainen jestu txarrendako bai. Orroitzen haiz... A bai, orai konprenitzen diat ~~ba~~ zendako zirezten Manez Ez pondaz mintzo, kura bezala baitzirezte: jadanik DONADO! Eta donado geldituko

ez bazirezte hobeki jokatzen.
Leon: Ba jokatzeaz ez ginen ez kexu ari, jokatzekoa
 ba gina...

Kat: Alta ez duzue jokatzeorik urkanen ez balinbaduzue
 neskatoentzat kontsiderazione gehiago, beki ziriko-
 piltzar batzuentzat karzen ba gaituzue! Zuek ere
 ez duzue nehor hatxemanen!

Min: Hortan hiekin ados naun!

Maité: Ni ere bai!

Peio: Gu, ez gintunan aras hortaz ari...

Kat: Eta zer zinioten bada?

Peio: Ginionan, oraino ustez segurik, Maneg-en etxalde hori
 joanen dela... joanen! Etxalde hortaz, hain segur,
 batere horren beharrik ez duen bat jabetuko dela...
 erran nahi baita edozoin aberats. Dirua den
 ber... denak libro, denak paño! Eta guti... lur
 horien zinezko behara dugunek, ezin eros, lunaren
 prezioa goregi delakoan, ezin martua... Baina
 zuek, aberatsak galantak hatxemaiten dituzue ez?
 Ez ~~den~~ hala? Alta, lagunak ba ditiagun, segun
 galdu nahi ez ditudunak eta laborantzari esker,
~~h~~ herian berean geldi litazkenak... Baina behar-
 bada zuentzat sobera basak...

Miser: Ezpondarot joaitako ez diki ez fin-fin kitarik izen behar...

Leon: Ezponda, Ezponda dun. Baina zuek ikus zer bilakaeraziko
 duzuen: basurde zilo ala uso oharre?—

(Eta orduan mutikoak kantuz hasten dira =

Urtxo xuria enaga nora joaten ziren zu (beniz)
Hiria eder; Herria kobe, uzten dutenak zoin ita
Hiri handira aratu orde hemen egon behar duzu
Sortu zaituen euskaldun lurra doi bat maitatzen baduzu
Gaurko zure ostatu, gure etxean baduzu ... (beniz).

(III) (4)

(Neokakzen min eta gutziak).

KATTALIN- MIRENTXU - MAITE

K. = "Gaurko zure ostata, gure etxean baduzu ... Poxi bat kitxikatuz, ez ditun ez halere guk uste dugun bezain basak..."

Mi. = Gauza batek haritu nin: lehen aldiko erran daikune hemen behar dugula gelditu, gure behara ba dutela...

K. = Erran, erran... Kantatu -

M. = Berdin din bai.

K. = Ez araso. Bainan hastapen baten dako ez dun gaizki... Halere diotlarik = gaurko zure ostata gure etxean ba duzu ... gau batentzat baizik ez balitz! Bainan kolako etxe batean sartu-ta gero, ez haiz gehiago ateratzen ahal! Urteak eta urteak; funbean bizi guziko estekatusa haiz! Nik segurik ez dinat gure amaren zorte bera jasan nahi. Ha ez!

M. = Nik ere ez alta! Laborantza ofizio zikina dun... Beki salta! Eta sekulan minuta bat ez kabaren hartzeko! Nik zerbait garbi nahi niken eta ez sobera atigavri. Bizi bat baizik ez ukanki-ta, ez din segur balio eskaloak bezala ar gaiten!

K. = Gure ama ikusi-ta, harritua egoiten nun... Hainbeste
haur urkanik, oraino ere zer lanak eta lanak ez
ditiu ibiltzen, funbean etxe guzira bere bizkar din.
Eta uste duzun gure aita zerbaiti oharitzen dela?
Ba pentsa! Hura ere, lan eta lan, eta etxeratuta
oihu zorbait bainan, solosa labur!

Mi: Horiek nin bada izitzen. Beldur ~~duzun~~^{nun}? Oxtiko mutiko
horiek ere ez ote diren gure aitari bezala izanen
eta gu beti zirikoz-piltzar, guk, senarrari,
familiar denak eman, denak eman eta heiek
guri DEUS edo araso guti...

K. = Hortakotz bada, hemen kokatzeko partez, nahi niken
hiri horietara itzuli bat egin. Ikusi. Jastatu.
Gero ere beti aski goiz izanen duzun berriz
itzultzeko.

Mi: Egia dion. Esperientzia on batek ez daukuan
kalterik ekarriko.

M. = Ni aldi, hirirat joateak ez nin hainbeste
agradatzen... Nahiago niken hemen berean gelditu.

K. = Hirezako, no!

Mait: Iduritzen zaizkidan hemen ere bizirik daitekela.
Bainan ez gauzak orai bezala atxiki. Hautsi
eta firindika bota behar diren zoharkeria
ainitz badun gure herri eta etxetan. Eta
uste dinat guri dela hastea, entzeatzen...

K. = Hise ametok Mait, halako ungarri usain bat ba diten...

M. = Ungarian erein hazietarik sortzen dituen landare ederrenak!...

GALTXA GORAI AGERTZEM

(Galtzagorri, aberatsen taula-gainean agertzen da. Neskak deitzen ditū. Kattalin eta Mientxu ^{ba deitzen} Maite aldiz kontuz hasten da:

"Ez nau izitzen ez lurak, are gukiago mendi gainak
Maite bat gakit^u pasa nezazke gaurki eta egunak
Baseniaren gozea ~~duke~~ ni hartu nahi nauenak...

Galtzagorri^{ki} bi neskak dantzaraziko ditu,
airoski -)

IV

(Ez norahiri sal)

PEIO, AITA, AMA

Ama: Oherat juhan gintian to... Zer behar dut, kiretzat berriz afariaren muntatzen hasi?

Pio: Ez du balio ez...

Ama: Ez haiza tenoreko jiten ahal, besteak bezala? Errak, ez nauk orai jekia gero, ni ere...

Pi: Ez dut erraiten...

Aita: Oraino noizean behin babiliz hederen, bainan azken aste hauetan frango ardura gertatzen zaut gauza bera... Zer duk hor gairdi?

Pi: Ba, ez gauza haundirik ez. Lagun batzu ikusteko.

Aita: Eta lagun batzu ihusi behar ditukalakoan daukuk beranta bil-arazten... Nik uste nian bai gauza serioago baten gatik zela...

Pi: Gauza serioak aipatzen ditugu bai lagunekin!..

Aita: Segur nahi nirek jakin, zer nahaster duzuen hor gairdi...

Ama: Eta "Ezponda"z entzun duka zerbait? Bi erosle ba direla, diotek. Bat, Pariseko norbait haundi eta bestea, eskualde kuntako makinun bat...

Pi: Hala diote bai.

Aita: Hobe!

Pi: Hobe, hobe...

Aita: Zer, ez zaurka onba?

P. = Ez!

Aita: Nolaz ez? Eroslea den ber kontent izan behar litakete, ez?
Segur nahi, Manez, loietan dagola...

P. = Loietan? Nola eran dezakezu hori? Loietan zintzake zu,
etxea, zure sort-etxea saldu behar bazinu?

Aita: Harena eta gurea ez dute berdin...

P. = Egia. Auzokoan penak biziki aiseago jasotak dira...

Aita: Ez dute batere konprenitzen zer eran nahi dutan.

P. = Zure eranak ez ditut behar bada onta konprenitzen
bainan Manez Ezpondari gertatzen zaiena segurik garbi
ikusten dut.

Ama: Bainan Peio, bi erosle urkan ditzen, gabea baino hobeto
dute, ez?

Aita: Eta nola!

P. = Hoberena izanen zen, lehenik, Manez-ek ez balu bere etxaldearen
salte beharrik urkan...

Aita: Ba zakian zerk idurikatzen zuen.

P. = Manez-ek etxea sat dezan, hemendik joan dadin, horiet
guzietik ez dautzute deus egiten? Ez zira hunkia?

Aita: Hunkia? Gu miserian ginelarik, ez ditut biziki
hunkiak izan to Ezpondakoak, gure laguntzerat
jiteko! Bakoitzak bere aldi! Eta jakin-zak; hori
erosiko duena ez dela orai arte zirenak baino
pisagoa izanen!

P. = Beraz zuri; etxalde hori normaleri saldua izan dadin
berdin zaitzu?

Aita: Ba, ba, normahiri. Gurezat igual dik. Igual!

Peio: E! E! da igual. Etxe hori, Mung-ek behar luke atxiki!

Aita: Berantegi duk orai.

P.: Edo bederen ez normahiri saldu. Etxalde honet laborarien eskutan gelditu behar luke. Lur horien behana ba dugu. Orai arte aipatu bi erostek ez ginezke onartu behar. Huts haundia litake. Gurezat kaltegarri.

Aita: Bainen, bainen mutikoa, zer derasak?

P.: Paristar aberato haundiak zer egin lezake etxalde hortarik? Udako pausa eta goxa leku bat? Eta gero denbora guzian hutsa egoiteko? E! ote dugue bada uste, jadanik, aski etxe huts ba dela hemen gairi? Edo, behar bada, zaldia ezar lezazke; nori dahi, berdin, basurde hazkuntza egin?...

Aita: Hori bere egitekoa ukanen dik.

P.: Bai eta gure egitekoa aldiz bestek egin pasuen heste...

Ama: E! duk errana Paristanak erosiko duela...

P.: Galtzagorik dir baietz.

Aita: Zer du Galtzagorik afera hortan itusteko?

P.: E! ahal dakizu?

Aita: E!

P.: Galtzagorri da Parisko aberato honen etxualde hunkako mutila. Funtsean ez batena bakarrik. Jakin orduko hemen zerbait salgai dagoela, segidan Parisera ba doa. Eta afera trenkatzen delarik, "komisionea"

hunkitzen du eta hola, dakizuenaz untaizko bizia da, debru krapauta!

Ama: Bakoizak bere ofizio...

Peio: Ez baikute haatik denek berdin balio! Bainan Paristanak ez erositik ere, Erdialak makinun tzar hori hor dabil, aiduru. Joan den egunean Manx Ezpanda-ekin itusita dut.

Aita: Zer duk horen kontra?

P.: Zer dutan? Zuharek ez ote dakizu, tripustel horek zenbat eta zenbat laborari ez dituen izorrate eta oraino ere izoratzen? Nola uste duzu bada hoin denbora labunz aberastu dela?

Aita: lanean ari duk...

P.: Eta gu, ez gira lanean ari? Ez ote ditugu egun guziz hamar-hamabi oren egiten? Nun dugu araberako sarria?

Ama: Makinunek ebatsia, omen...

P.: Bai, makinun eta haundi-maundiek ebatsia! Eta onart zinezakete zuek, pitait horek etxalde hoi onoz dezan bestein gainera?! **EZ!** Ezpondak ez du ez Paristan aberats okituari, ez eta makinun ohoinari joan behar! Ezpanda, laborarien eskutan, gure eskutan atxiki behar dugu, nehoi saltzera utzi gabe!

Aita: Konprenitzen diat bai orai zendako haizen hoin ardura etxetik joaten... Konprenitzen diat! Ai urdea! Sartua sartua hi ere salta pollitean! Ez haiz ahalge?

P.: Zertaz ahalge? Zer diozu?

Aita: Zer diotan? Ba dakit bai zer diotan. Ez nian beste

beldurrik. - Oraino gazteak zerbait ba dira bai! Jainkoak
dahik zer zozokeriak pasatzen ahal zaizkitzuen burutik!
Eta hi ere justu-justua hor gertatu, delako "lagunekin"!
Lagunak dituzka lagunak, zuen onetan ez zazuela
sobera amets egin! ez zazuela burua sobera bero!

Peio: Baiman aita, gure ideiak ez dira batere beste
mundukoak; guk nahi duguna da gure lagun
batek hor dezan "Ezponda" eta laborantza segi.
Ez dugu beste deus galdegiten...

